



**2018KO UZTAILAREN 24KO  
OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hemezortziko uztailaren hogeita lauan, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, Begoña Bueno Barranco, Iñaki Estensoro Sarasola, Amagoia Naldaiz Mingo, Jaber Arrasate Aierbe, Ioseba Hernandez Madinabeitia, Marian Zufiria Apeztegia, Imanol Aran Barandiaran, Leire Mendia Arana eta Urtzi Iruin Arruti.

Bere ezin etorria adierazi du Azeari Andonegi Beristain zinegotziak.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2018ko ekainaren 26an egindako bilkurako akta.

Hernandez zinegotziak (EH Bildu) esaten du kreditu aldaketaren puntuan jasota gera dadin nahiko luketela, herribideen mantenurako partida beste hainbeste gehitzea ez genuela ondo ikusten, ez zela beraiek azaldu nahi zutena baizik eta urte hasierako aurrekontuaren aurreikuspen txarra egin zela salatzen zutela.

Hau esanda, gainantzean akta idatzita dagoen moduan onartzen da, bertaratutako partaide guztien aldeko botuekin.

**II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-**

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezaren Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

**III.- KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 5 ZBK.DUN KREDITU ALDAKETA.-**

Udal honetako aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontu hartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onspen proposamena irakurri dira.



Kreditu aldaketa honen gastuetako partida bakarra Areson bidegorria egitekoarena da eta sarreretan bidegorri hori egiteko Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru laguntza eta bien arteko aldea diruzaintzako gerakinarekin berdinduko da.

Hernandez zinegotziak (EH Bildu) esaten du azkeneko hilabeteetan esan dutenaren ildo bera jarraituz, hilabete bakoitzeko kreditu aldaketa bat egiten ari dela eta ez zaiela ondo iruditzen eta kreditu aldaketaren edukian ez direla sartuko eta abstenitu egingo direla.

Alkateak esaten du kreditu aldaketa hau bidegorria egiteko lortu den diru laguntzak eta aurrekontuan gastu hau gaitzeko beharrak bultzatu duela.

Hau honela, eta gaiaren inguruan eztabaidatu ondoren, bozketan jartzen da eta Osoko Bilkurak, aldeko 7 boto (EAJ), aurkako botorik gabe eta 5 abstentziaz (EH Bildu), honako erabakiak hartzen ditu:

**Lehenik.**- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko 5 zbk.dun kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:

#### KREDITU GEHIKUNTZAK

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
VI	Inbertsio errealek	180.000,00 €
<b>GEHIKUNTZAK GUZTIRA</b>		<b>180.000,00 €</b>

#### FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
VII	Kapital transferentziak	34.228,97 €
VIII	Finantza aktiboak	145.771,03 €
<b>GUZTIRA</b>		<b>180.000,00 €</b>

**Bigarren.**- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

#### IV.- IRUÑEAN 2016KO UZTAILAREN 7KO GERTAKARIEN AURREAN LAZKAOKO UDALAREN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA.-

Lazkao Udala osatzen duten bi taldeen adostasunarekin, honako adierazpen instituzionala egiten da:



LAZKAOKO  
UDALA

1. Lazkaoko Udalak erabateko babesa eta elkartasuna helarazten dizkie biktimari, bere senideei eta ingurukoei.
2. Lazkaoko Udalak, errespetutik, adierazten du ez dagoela ados emandako epiairekin, eta fiskalak eta akusazioek ipinitako helegiteen atzeratzeekin, batez ere, gertakariak sexu-abusu delitu jarraituzat jotzen dituelako. Zentzu horretan, adierazten du bat egiten duela Iruñeko Udalak eta Nafarroako Gobernuak iragarritakoarekin (hau da, legeen zirrikituak arakatuko dituztela gertaeren larritasuna dela eta).
3. Lazkaoko Udalak ulertu egiten du emakumeek eta herritarrek epai honen ondorioz duen etsipena eta sumindura. Izan ere, erabakiak babesik gabe uzten ditu emakume guztiak; sistemak ez ditu behar bezala babesten emakumeen bizitzak eta ez ditu emakumeen eskubideak bermatzen.
4. Lazkaoko udalak berretsi egiten du erakunde guztiak jardun behar dutela emakume guztiak askatasun osoa izateko duen eskubidearen esparruan, eta, beraz, aditzera ematen dugu erabat arbuiatzen dugula emakumeen askatasunen kontrako edozein eraso, sexistak zein bestelakoak. Erasoen aurka egiten diren mobilizazioekin bat egiten dugu eta deia luzatzen diegu herritarrei, parte har dezaten.
5. Lazkaoko Udalak berretsi egiten du duen konpromisoa aurrerantzean ere lanean jarraitzeko, egiazko eta benetako berdintasunaren alde, emakumeen eskubideen defentsan, eta bai despaketotasunak bai emakumeenganako egiten diren indarkeria mota guztiak erauzteko.

#### VI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpiak eta hamar direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

